

ARGIA.EUS/LARRUN

# ERAUSO

(KRITIKATU) BEHAR DUGU



# LARRUN#277

# MOJA ALFEREZAREN IKONOA, EZTABAIDA TRANS ETA ANTIKOLONIALERAKO AKUILU

EGILEA | **JUNE FERNÁNDEZ**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

**E**rauso, Katalina (*Moja alfereza* deitua). Gipuzkoar abenturazalea". 1603. urtean, nerabe izanda, komentutik alde egin eta, geroztik, gizonezko jantziekin bizi izan zela kontatzen digu Lur Entziklopediak. Ameriketara gizon zuriekin izan zituen liskarrak eta horiek eragin zizkieten zigorrak aipatzen ditu entziklopediak, ez ordea indigenen kontrako sarrasketan parte hartu izanagatik lortu zituen pribilegioak. Horien artean, alferezaren izendapena eta erregeak zein Aita Santuak Antonio Erauso bezala bizitzen jarraitzeko baimena, trabestismoa bekatua eta delitua bazen ere.

Mugagabea da Moja alferezaren istorioak eragin duen saturazio kulturala: eleberriak, antzezlanak, filmak, komikiak eta artikulua akademikoen eztanda egon da nazioarte mailan, XVII. mendetik gaur egun arte. Katalina/Antonio Erausoren bi alderdik piztu dute eztabaida: genero-nortasuna eta 1625. urtean Madrilen argitaratu zuen autobiografiaren egiletza. Bertsio guztietan nabarmentzen da bere anaia dolu

batean hil zuela, ez ordea ume indiar bat taldean akatu izanaz harro agertzen zela.

Onar dezagun behingoz: neskato abenturazalea gizon trans kolonizatzaile odoltsua izan zen. Inkisizioak genero disidentziak sutara biddaltzen zituen garaian, salbuespen estatusa lortu zuen konkistaren zein ebanjelizazioaren ideal patriarkalak gorpuztu zituelako.

Erausoren inguruko lilura puztu baino, figura historiko deseroso hau autokritikarako baliatzeko gonbitea egingo dugu LARRUN monografiko honetan, transfeminismoa eta anticolonialismoa ardatz hartuta, Katalina/Antonio-ren historia jaso duten hiru arte-erakusketetako partaideen bidez. Azken erakusketa, *Ahots bat Erausorentzat*, irailaren 26ra arte egon da ikusgai Bilboko Azkuna Zentroan. Transfeminismotik irakurketa garaikidea aurkeztea izan da Cabello/Carceller egileen eta Paul B. Preciado komisarioaren helburua. Alabaina, izenburua paradoxiko samarra da, Erausoren erretratua eta errelatoa heldu zaizkigulako, ez ordea kolonizatutako zein esklabizatutako genero-disidentena.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.793 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOIA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2022ko irailaren 25a

---



**PAUL B. PRECIADO**

## *“Erauso interesgarria da, maskulinitate patriarkalaren arauak urratu eta asimilatu zituelako aldi berean”*

Bi pantaila erraldoietan proiektatu dute 'Ahots bat Erausorentzat bideo-instalazioa. / AZ

“Antonio naiz!”, errepikatzen du Mursegok *Ahots bat Erausorentzat. Trans garai baterako epilogo* bideoarte piezarako sortutako abestian. Letra Helena Cabello eta Ana Carceller artista madrildarrek idatzi dute, Erausoren autobiografiaren berrirakurketa transfeminista egiteko helburuarekin. Haien ustez, “botere heteropatriarkalak entzun nahi zuen kontaketa” idatzi zuen Katalina Moja alferezak, Azkuna zentroko erakusketaren inaugurazioan azaldu zuten.

**B**ideoaren lehenengo partean, egungo hiru pertsona trans ez-normatibo arituko dira Erausoren erretratuekin solasean, tonu kritiko eta ironikoan. Adierazi diote genero- eta sexu-disidenteon arbaso dutela, baina ez daudela harro bere biografiaz.

Cabellok eta Carcellerrek urteak eman dituzte Erauso lantzeko ideiarri bueltaka. Erakusketaren aurkezpenean aitortu zuten erakarpene bezainbesteko gaitzespena eragiten ziela pertsonaiak: “Espainiako Inperioaren sarraski eta suntsiketa kulturalen parte hartu zuen, arra-

zakeria eta misoginia adierazi zituen, eta daga eskuan bizi izan zen. Disentsutik egin dugu lan, ikusteko zer balia dezakegun egungo testuinguruan”. Horregatik, orainaldia eta iraganaren arteko bidaia prestatu dute: Erausok artxibo historikoe-tan utzi zituen arrastoetara heldu aurretik agertu zaizkigu Judith Butlerren *Genero nahasmendua* saiakeran oinarritutako performancea eta Hollywoodeko aktoreak imitatzen dituzten *drag king*-en argazkiak. Cabello/Carcellerrek Donostiako Udalarri egin dion eskaeraren kopia-ekin itxi dute erakusketa: Amarako Katalina Erauso kalearen izena alda dezala, Katalina/Antonio agertzeko.

Nazioartean ospe handia duen Paul B. Preciado filosofo kuirra izan da erakusketaren komisarioa. Burgosen jaioa, amama barakaldoarra zuen eta Moja alferezaren historia

askotan entzun zuen txikitan. “Genero femeninoa esleitu dizutenean eta beste identifikazio bat duzunean, nire kasuan bezala, badakizu Erausok egin zuen ezohiko bidaiak zure bizitzarekin zerikusia duela”. Tokiko historian genero- eta sexu-disidentzien narratibak aurkitzeko premia nabarmentzen du Preciadok, AEBetara begiratu ordez. *Pikara Magazine*-rako egindako elkarrizketaren laburpena da hurrengoa.

### Ikono feminista, lesbiko edota trans gisa hartu da Erauso.

Hori guztia zen, eta ez zen ez bata ez bestea. Sexu- eta genero-identitateak modu segmentatuan pentsatzen ditugu egun. Aldiz, Erausok ez du kontakizun itxirik ahalbidetzen, askotariko interpretazioak baino. Jakina, komentutik ihes egin izana genero-emanzipazioko prozesu gisa uler daiteke. Lesbianismoari dagokionez, biografietan Don Juan moduko bat bezala aurkeztua izan da, baina ez zen ezkondu eta ez zitzaien emakume zehatzik ezagutu. Trans identitateaz hitz egitea are zailagoa da, bere garaian

generoaren nozioa ere ez zegoelako garatuta. Halere, titiak zanpatzeko plasteak erabiltzen zituen, *binder-a* gogorarazten duen praktika. Ez zaigu interesatzen Erausori behin betiko nortasuna ematea, historiarekin eta orainarekin dugun harremana arakatzeari baizik. Erauso aldarrikatu nahi duenak arazo bat izango du, klase altuko figura ilun bat delako, bere inguruko botere-sareak baliatu zituen indarkeriaz, arrazakeriaz eta misoginiaren blaitutako prozesu batean.

### Koroaren eta Elizaren babesa bilatu zituen etengabe...

XVII. mendean ez zegoen emakume alferezik eta, beraz, izendapen hori generoa egiaztzeko modu bat da. Gizarte garaikidean, balidazio-esparruak arlo mediko-juridikora mugitu dira. Nik neuk baliozkotze-prozesu bat igaro behar izan dut pasaporteak nire identitatea isla dezan, eta horrek ematen dit lasai bidaiatzeko aukera. Erauso interesgarria da, maskulinitate patriarkalaren arauak urratu eta asimilatu zituelako aldi berean.



## “INDARKERIA BALIATU ZUEN ERAUSOK BERE GIZONTASUNA LEGITIMATZEKO ETA ZAURGARRITASUNARI ERANTZUTEKO”

**HIRU PERTSONA TRANS** garaikidek interpelatzeko dute Erauso erakusketaren pieza nagusia. /AZ





■ **Ezagutzen ditudan gizon ezko trans eta intersex historikoak armadei edota gerrillei lotuak egon dira, hala nola, Amelio Robles koronel mexikarra eta Florencio Plá Messeguer makia.**

Erausoren autobiografia irakurri nuenean arreta eman zidan zenbat harrotzen den egilea bere ekintza bortitzez; esajerazio puntu bat ere badago. Indarkeriaren erabilerearen bitartez gizon gisa legitimatzen zuen bere burua. Erauso ez balitz konkistan inplikaturako figura militarra, eta klase altukoa, ez luke aukerarik izango izena aldatzeko, ezta Aita Santuaren aitortza jasotzeko. Genero praktika disidente askoz gehiago egon ziren, baina esparru militarrekin zerikusia dutenak edo botere judizialarekin harremana izan dutenak heldu zaizkigu, administrazio-ziurtagiriak daudelako. Feminismoaren hedapenak emakume zientzialari edo artista andana azaleratu duen bezala, ikerketa historikoaren metodologia aldatu beharko litzateke, beste subjektu batzuk ager daitezzen.

■ **Gaur egungo ikuspegitik, zer interesatzen zaizu Erausori buruz?**

Lagungarria da ikusteko nola igaro den sexualitatearen ulerpena paradigma teologiko-politikotik paradigma zientifiko-mediko-farmakologikora. Erausok, biziraupen-estrategiagatik bada ere, finkoak ez diren genero-praktikak zituen; Europara itzuli zenean, aita santuaren bulda izan aurretik, emakume gisa identifikatu zen berriro ere, eta ondoren

gizon gisa eman zituen azken urteak. Gaur egun, erregimen bitarretik irtetea proposatzen ari dira aktibista transak. Genero-berresleipenak eskatzea beharrezkoa izango ez den paradigma administratibo-juridiko bat behar dugu.

■ **Zenbait diskurtso feministak transexualitate maskulinoa pribilegio patriarkalarekin lotzen dute. Aurreiritzi hori berresten du Erausoren historiak?**

Gizon trans baten gizotasuna ez da inoiz guztiz onartua izango gizarte heteropatriarkalean. Esango nuke Erausok egiten duen indarkeriaren laudorioak XVII. mendeko armadetan bizi zuen muturreko zaugarritasunari erantzuten ziola. Trantsituarekin pribilegio-postura igarotzen garela esan ohi da, baina ez da egia. Gizonezkoen pasaportearen arren, poliziaaren aurrean biluztu behar bagara, zaugarritasun itzela biziko dugu. Transfobikoa da emakume transei haien iragan maskulinoa leporatzea eta, era berean, transfobikoa da gizon transok patriarkatuan integratzen garela pentsatzea.

■ **Erausoren historia balia dezakegu identitate transen kontrako erasoei erantzuteko?**

Erausok ez digu ezer legitimatze baliore, bere biografia kolonialista eta nazional-katolikoan ez baitago ezer berreskuratzeko. Eskuin muturreko trans mugimendu hipotetiko bat inspiratu lezake! Hori da interesgarriena: figura heroiak ez denez, historiaren irakurketa konplexuagoa egiteko aukera ematen digula.



DANI BLANCO

## Josebe Iturriozen testigantza

“Gaztetatik ezagutu nuen Erauso. Mugimendu feministako emakume ni baino zaharragoek kontatu zidaten historia. Hasieran, Juana de Arcorekin gertatu zen moduan, erreferente lesbiko gisa irakurria izan zen gure inguruan; ez genuen transexual edo transgenero bezala uleretzen. Banekien Ameriketara joan zela eta kolonialista bat izan zela, baina ez zegoen irakurketa oso kritikorik Donostian. Antonio Erauso da historian daukagun gizon trans legal baten lehenengo erreferentea, benetan onartua izan zena. Baina hil arte gizon gisa bizitzen utzi zioten figura oso kolonialista eta arrazista izan zelako, eta maskulinitatearen eredu hegemonikoa hartu zuelako. Hortaz, erreferentzia inportantea da jakiteko garai haietan eta historian zehar errealitate transa existitu dela, baina batez ere interesgarria da hausnartzeko zer maskulinitate eta feminitate eredu gorpuztu nahi ditugun egungo pertsona transok. Betiko maskulinitate matxista erreproduzitu ordez, maskulinitate propioa garatzearen aldekoa naiz ni.

## RÍO PARANÁ KUIR ARTISTA ANTIKOLONIALAK

# “Kolonizazioaren biktimak ohoratzen ditugu, ez heroi irabazlea”

Katalina/Antonio Erasoren ahotsa eta aurpegia ezagutzen ditugu, baina ez dakigu ezer bera moduko kolonoek sarraskitutako eta esklabo bihurtutako genero-disidenteei buruz. Lapurtutako memoria eta duintasuna berreskuratzeko artxibo historikoetan murgiltzea da Rio Paraná-ren lanaren ardatza, Duen Sacchi eta Mag de Santo artista bisual, *performer*, idazle eta ikertzaile trans argentinarek osatutako taldea.

**R**io Paranáren proiektu artistiko antikolonialetan eta kuirretan, mende luzetako konkista garaietako indiarren sarraskiak daude, baina baita disidentzien aurkako gaur egungo jazarpena ere: nahitaezko desagertzeak, transnazionalen estraktibismoa, nazio indigenen aurkako indarkeria instituzionala edo trabestizidioa. Kontraespedizioak egiten dituzte Europara, suntsituen, profanatuena eta museo antropologikoetan ikusgai daudenen lekutik kontatzeko historia.

"Baliteke Erasoren ezaugarri ospagarri bakarra izatea trans pertsona gisa bizirik irautea, baina historiak Katalina moja alfereza moduan izendatzen jarraitzen du: horra hor Mendebaldeko gizateriaren bi eredu nagusien batura sintetiko eta oximoronikoa". 2021ean Bartzelonako La Virreina aretoan eta 2022an Panama-

ko Arte Museo Garaikidean ikusgai egon zen *La pisada del Ñandú* (Ñanduaren oinatza) katalogorako idatzi zuten esaldia. Erauso gonbidatu bat baino ez da erakusketa horretan, eta Abya Yalako pertsona trans, trabesti eta ez binarioak dira protagonista, bai Argentinako Trans Memoriaren Artxiboak gordetzen dituen herritar garaikideak, bai *weye*, *muxe* edo *bixa* izenak jaso zituztenak.

Analisi gehienek ozta-ozta ukitzen dutena, horixe interesatzen zaio Rio Paranári Erasoren iruditik: indigenen genozidioan izan zuen parte-hartzea, ez baita bere biografiaren xehetasun txiki bat, baizik eta bere bizitzako patua eta ospea azaltzen duen funtsezko elementua. Nolanahi ere, arreta prozesu kolonialaren biktimitan jarri beharra azpimarratzen dute, eta ez hainbeste biktimarioetan, hauek oso kuir izanagatik ere.

### Nola ezagutu zenuten Erauso?

**D. SACCHI:** Erasorekin topo egin nuen erakusketa honetarako iker-tzen ari nintzela, baina ez zitzaidan asko interesatu. Kortsarioak neskak diren istorio horiekin lotu nuen. Ez ginen bilatzen ari transen existentzia historikoa frogatzea –hori ziurtzat jotzen genuen–, baizik eta kolonialismoaren, arrazakeriaren eta genero-binarismoaren eraikuntzaren arteko kodependentziaren adibide izatea. Hego Amerikako Inkisizioaren artxiboetan, trans maskulinitateagatik epaitutako kasuak topatu nituen, gehienak beltzenak edo indigenenak. Ez zituzten hil, baina haien komunitatetatik alde egin behar izan zuten eta historiatik ezabatu zituzten. Kasu horietako batean, Erauso aipatzen dute.

Aldi berean, Amerikako Museoan bildumak berrikusten aritu



Duen Sacchi (kamiseta horiarekin) eta Mag de Santo, Virreinako erakusketaren prentsaurrekoan.

PEP HERRERO

ginen, izaera antropologikoa zuten erakusketak arte-museoetara eramateko asmoz. Pieza piloa genero ez-binarioaren adibide onak ziren. Amerikako Museoak egindako erakusketa antropologiko batean, Erausoren koadroa identitate ez-binarioaren adibidetzat hartzen zela aurkitu nuen. Googlen bilatu nuen ondoren, pertsonaiari buruzko milaka sarrera atera zitzaizkidan eta koadroa Kutxan zegoela ikusi genuen. Informazio gehiago ere aurkitu genuen Txileko artxiboan, non konkistatzaile izendatzen zuten, eta han hasi zitzaidan pertsonaia interesatzen. Alferez kargua ez da edozein kargu, konkistatutako lurraldean bandera ezartzen duena baizik. Beraz, kolonoaren koadroa



**“KONKISTAN PARTE HARTU  
ZUTEN EUSKAL FAMILIEN  
ARBOLA GENEALOGIKOA  
EGIN ZENEZAKETE”**

Bartzelonako erakusketan sartu genuen, testuinguruan kokatzeko, La Virreinan izanda bereziki esanguratsua zelako.

**M. DE SANTO:** Niri beste ikerketa-

ildo bat interesatzen zait: fikziozko autokontakizun horretan Erausok bere burua nola eraikitzen duen. Azken finean, haren bidez Aita Santua eta erregea konbentzitzea nahi zuelako kolonian egindako lanagatik biziarteko ordainsariak kobratzeko. Berak kontaktzen duenak ez du zentzurik, Andeak oinez zeharkatu zituela, adibidez. Aita Santuaren bulda jaso zuela esaten da, baina ez dugu hori frogatzen duen erregistrorik aurkitu. Oso zaila da, halaber, inor ez konturatzea trantsa zela. Ni liluratuta geratu nintzen lanaren eleberri izaerarekin eta tesuan bi literatur genero gurutzatzen direlako, hurrenez hurren European feminitate eta maskulinitate tresna gisa funtzionatu dutenak: mo-



jen egunkari intimoa eta Indietako kronika. Txundituta utzi ninduen nola pasatzen den gizon heroikoa izatetik birjina dela aitortzen duen emakumea izatera; nola igarotzen den oso kanpora begira egindako kontakizun batetik, emaginek bagina eta himena ote zuen egiaztatu zutela kontatzera.

Dokumentu eskuragarria da, ez zen galdu, eta berrargitaratu egin da. Gainera, Argentinan nahiko ezaguna den idazle batek, Gabriela Cabezón Cámarak, hitzaurre lesbikoa jarri dio. Filmak ere egin dira. Baina, jakina, zuria delako gertatzen da hori. Badakigu Mexikon moja alferzari buruzko haurrentzako liburuxka bat saltzen zela kioskoetan, propaganda kolonial gisa funtzionatzen zuena.

Feminismo zuriaren irakurketa da genero-zapalkuntza gizonez mozorrotuta saihestu zuela, Juana de Arco gerlariak egin zuen moduan. Guk azpimarratu genuen indiar-hiltzaile bat izan zela, eta hortik eraiki zuela bere maskulinitatea. Erausok kontatu zuen bidaiaren kontra-espedizio bat egin nahi dugu: kolonoarenaren alderantzizko bidean abiatu beste irakurketa batzuk aurkitzeko. Antonio gisa ondasunak heredatu zituen, eta horrek esan nahi du sasoi hartan hark trantsizio osoa egin zuela, guk XXI. mendean oraindik ezin dugunean hautatutako izenarekin heredatu. Noski, ekonomia-eta arraza-posizioagatik lortu zuen erregistro-aldaketa horiek egitea.

**D. SACCHI:** Alde koloniala ezkutatze joera dago, alde hori pertsonaiaren arazotxo gisa aipatzekoa. Baina guk zigorra, erbestea edo heriotza helburu zuten beste pertsonaia batzuekin alderatzen dugu, esate batera Eleno Cespedesekin, apur bat lehenago Espainiako testuinguruan jaio eta hazitakoa. Erausoren kasuan, erregeari zuzenean idatzi zion gutuna dugu, eta erregearen erantzuna ere bai. Cespedes,

aldiz, Inkisizioaren dokumentuetan bakarrik agertzen da, ez dugu haren ahotsik.

**M. DE SANTO:** Cespedes esklaboa izan zen eta libertoa zen, baina gizarte-igoera lortu zuen zirujaua zelako eta gorterako lan egin zuelako. Trans zela jakin zutenean, zigortu egin zuten, jipoitu eta deabruarekin ituna zuela leporatu zioten. Argigarria da, zuriak aurpegia eta ahotsa, liburuak eta filmak ditu; aldiz, afrikar jatorrikoaren kontakizunik eta erretraturik ez dago. Indietara bidali omen zuten, baina ez dago baieztatuta. Erakusketan Sebastián Calfuqueoren *Nunca serás un weye* (Inoiz ez zara *weye* izango) bideo-performancea ere sartu genuen. Horretan erreferentzia egiten zaie Erausok Txilen pertsona gehien hiltzuten komunitate indigenetako batean izandako sarraskiei eta genero-identitate suntsiketari. Horrela, transen hiru tratamendu desberdin erakusten ditugu, haien lurraldekokapenaren arabera. Asimetria

hori gaur egun ere mantentzen da: boterea dutenek beren burua kontatzen dute, eta "besteak", alteritate posizioan daudenak, kontatuak izaten dira. Lehen Inkisizioak jazaritzen gintuen eta gaur egun Poliziak.

**D. SACCHI:** Erausoren kuadroa ez genuen Bartzelonan sartu hura lehen trans gisa omentzeko, bere ondorengoak zuzenean interpeltzeko eta egitura kolonial hori erakusteko baizik. Oso dibertigarria izan zen ikustea Bartzelonako kultura-agintariak balio handia ematen ziotela koadroari, Velazquezen maisu Francisco Pachecorena zelakoan. Guk, aldiz, garrantzi handiagoa ematen genion Cespedesen dokumentuen erreproduzio on bat izateari.

**M. DE SANTO:** La Virreinako zuzendaritzak ez zuen zalantza txikiena izan dirutza gastatzeko koadroaren garraioan eta kontserbazioan. Baze goen lilura bat objektuarekiko, guk partekatzen ez genuena, eta nahia go genuen diru hori gutzia bizi di-

"Donostiako familia aberatseko semea, biziarteko sostengu ekonomikoa lortu zuen indigenen genozidioan jarduteagatik". Erausoren erretratua asmo kritikoarekin agertzen da *La pisada del Nandu* erakusketan.

PEP HERRERO





ren trans artistei eskaintzea. Gainera, une batean, esan zuten kuadroa ez zela Pachecorena, Juan Van der Hammer delako batena baizik, eta bat-batean balioa galdu zuen.

### **Nola antzematen duzue euskaldunek kolonizazioan izan zuten papera?**

**M. DE SANTO:** Elkano izeneko kale oso garrantzitsu bat dugu Buenos Airesen. Eta gure askatzaile deituriko baten [Juan Manuel de Rosas] emaztearen abizena Ezcurra da. Hemengo lehen kolonoak euskaldunak izan ziren.

**D. SACCHI:** Independentzia-gerra deiturikoetan botere militar eta judiziala zuten familia gehienak euskaldunak ziren eta, zehazki, Basamortuaren Konkistaren buruak [Rosasek 1833an zuzendutako espedizio militar bat, non pampak, rankelak, tehuelcheak eta maputxeak sarraskitu zituzten]. Euskal Herria Patagoniara eramateko proiektua aurkeztu zien Rosasek Nazioaren Kongresuari eta presidenteari. Aukera hori aintzat hartu zuten argentinarek! Eta tristeena, lurraldea plurikolonia batean banatzeko oinarri moduan hartu zuten: euskaldunak hemen, alemaniarrek hor, galestarrak han...

XIX. mendeko genozidio indigena horren eta Hego Konoko XX. mendeko genozidioen arteko jarraipena frogatzea interesatzen zaigu, David Viñas idazleak ondo aztertu duena. Nestor Kirchner presidente zela, diktadura zibiko-militarraren aurkako epaiketak hasi ziren, egiaren, oroimenaren eta justiziaren alde egiteko. Orduan, diktadoreen koadroak jaistea izan zen estatuak burututako ekintzetako bat. Horretan inspiratzen gara eta gure erakusketan Erausoren koadroa jaisten dugu kontinente amerikarra zapaltzen duenean, jarraikortasun hori sinbolizatzeke.

**M. DE SANTO:** Kuadroa jaisteko

keinuarekin batera, Cespedesi buruzko artxiboak igo genituen eta koaderno zuri batzuk banatu genituen, norberak bere genero-autofikzioa sor dezan eta nortasuna eraikitzeke espazio hori izan dezan. Azken orrialdean Erausoren historiari buruzko gure irakurketa eskaintzen dugu.



**“BOTEREA DUEN  
XARMAREKIN HAUTSI  
BEHAR DUGU. LORTU  
BEHAR DUGU ERAUSO  
HILTZAILA GISA  
IKUSTARAZTEA, INORK  
BEREGANATU NAHIKO EZ  
DUEN SUBJEKTU ANKERRA”**

**Catalina Erauso kalearen izenean Antonio eransteke eskatu dute Cabello/Carcellerrek. Ados zaudete edo ohore hori kendu beharko litzaioke? Eta zer egingo dugu bere bustoarekin?**

**D. SACCHI:** Oso ondo iruditzen zait Erausoren identitate maskulinoa berrezartzea, bere garaian aitortua izan zena ezabatu delako. Baina konkistan eta genozidioan parte hartu zuela ere argitu beharko litzateke. Monumentu bat kentzen bada (Bartzelonako Udalak Antonio López enpresaburu esklabistarenarekin egin duen bezala), ezabatutako historia kontatzen duen plaka utzi behar da, oroimenari eta egiari ekarpena egingo diona. Nolanahi ere, Erausoren koadroa jaisteko ekintzaren bidez zera go-

gorarazi nahi dugu: pertsona bat ez dela guztiaren erruduna, baizik eta genozidioei eusten dien egitura zabalean jarri beharko genukeela arreta. Konkistan parte hartu zuten euskal familia guztien koadro genealogikoa egin zenezakete!

**M. DE SANTO:** Argentinan ohikoa da aktibistek kaleen izenetan eskuhartzea. Espazio publikoak indar handia dauka gurean, Espainiako Estatuan baino errazagoa da eztabaidaleku bihurtzea. Artista gisa, kasu bakoitzerako oso ondo pentsatutako estrategia zehatza diseinatzen dugu. Henry de la Vaulx kolonizatzaileari buruz lan egin dugu; Patagonian hilobiak profanatu eta gorpuak lapurtu zituen, Europako museoetan erakusteko. Champs Elyséesetan hileta ederra izan zuen. Gure proiekturako hileta-plaka bat sortu genuen, bere ekintza makurrak zehazten dituen. Beste estrategia bat biktimak ikusgai egitea eta omentzea da: Vasco Nuñez de Balboak Panamako istmoa zapaldu eta komunitate oso bat hil zuen; ez ditugu biktimen izenak ezagutzen, ez dugu haiei buruzko informazio askorik, baina haiek daude gure proiektuaren erdigunean. Alegia, irabazle heroikoa nabarmentzen jarraitu beharrean, nahiago dugu garaituak izan zirenen zein egun erresistitzen dutenen memoria berreskuratzea.

**D. SACCHI:** Biktima horiei lore eskaintza egin genien, eta Panamako museoeko langileek parte hartu zuten. Askotan ahaztu egiten ditugu biktimak, baita errebisionismo historikotik eta arte bisual dekolonialetatik ari garenean ere. Adibidez, hain ospetsuak diren Bryren Théodore-ren grabatuetan [sarraski kolonialak ageri dira] fokua biktimarioetan dago jarrita. Beste ohiko akats bat da genozidioaz hitz egitea entelekia bat balitz bezala, eta gu saiatzen gara horretan ez erortzen. Erakutsi nahi izan dugu sarraski

hori istmo honetan gertatu zela, geolokalizazio bat duela, joan gaitzkeela, gaur egun ere badaudela komunitate horretako oinordeak, kolonizazioa ez dela amaitu eta haren ondorioek gaur egun arte jarraitzen dutela. Vaulxen kasuari buruzko gure proiektuan (*¿Qué hacen con nuestros huesos?* Zer egiten dute gure hezurrekin?) zientzialariak, estatuko funtzionarioak eta Europako konplizeak izan ditugu lagun, memoria, egia eta justizia bilatzeko. Justizia sinbolikoaz gain materiala izatea lortu dugu: lapurtutako gorpu batzuk itzuliko dituela iragarri du Frantziako Estatuak.

**Preciado eta Cabello/Carcellerek nabarmentzen dute Erausoren erretratua dela pertsona trans baten lehenengo erregistro bisuala. Zuen lanak, aldiz, historian ezabatuak izan diren genero-disidente indigenengan jartzen du azpimarra.**

**M. DE SANTO:** Europak ekarri zuen

Abya Yalara dimorfismo sexualaren naturalizazioa. Aldi berean, trans izateko modu homogeneizatzaile eta unibertsal bakarra inposatu digute, Erausok gorpuzten duena:



**“EZ DUGU ERAUSO  
OSPETSUAGO EGIN NAHI;  
APARRA JAITSI  
BEHAR ZAIO”**

maskulinitate zuria, itxia, *passing-a* eta aitorten instituzionala duena, besteen deuseztapenaren gainean eraikitzen dena. Lehen transa izan zela baieztatzen denean, kolonizazio-prozesuak suntsitu zituen esperientziak inbisibilizatzen dira.

**D. SACCHI:** Ez dugu esan nahi Abya

Yalan genero-binarismoa ez zegoenik, baina ez zegoen Mendebalde zurian bezain orokortuta, eta bestela pentsatzen ziren feminitate eta maskulinitatea. Erauso trans figura ulergarriagoa da Mendebaldearentzat eta guretzat ere, jatorrizko herrien aniztasun sexogenerikoarekin alderatzen badugu. Baina argi izan behar dugu aniztasun hori ez zela puntuala, baizik eta unibertsala. Bestela, Latinoamerikan eta Afrikan oso errotua dagoen aurreiritzia indartuko dugu: trans identitateak Mendebaldetik heldu zaizkigula. Eredu bakar globalizatua da heldu zaiguna.

**M. DE SANTO:** Dena den, oso joera europarra da norbait “ez-dakit-zer egin duen lehenengo pertsona” izan zela nabarmentzea. Nori axola zaio nor izan zen lehena? Monumentalizazioarako irrika hori problematikoa iruditzen zaigu. Zerbait txikiagoa interesatzen zaigu: tokiko inskripzioak, kasu. Gure ustez, keinu epikoek ezin gaituzte leku interesgarrietara eramanez.



Egun trabesti, trans edota ez-bitar gisa izendatuko genituzkeen Abya Yalako pertsonen kontrahistoria ehuntzen dute De Santok eta Sacchik.

**D. SACCHI:** Elkano gogorarazten dit horrek: munduari bira eman zion lehen gizona. Ozeano Barean eta Atlantikoan antzinako komunitate nabigatzaileak bazeuden, baina agian ez zitzairen interesatzen munduari bira ematea, oso anbizio europarra baita.

**Cabello/Carcellerrek Erausoren alde dio haren bokazioa ez zela militarra, merkataria baizik.**

**D. SACCHI:** Testuinguru horretan merkataritzan aritzeak esklabuen, lurren eta indigenen baliabideen trafikoa zekarren. Zer beste merkataritza mota zuen koloniak?

**M. DE SANTO:** Eta pirata izan zen aurretik!

**LARRUN honen asmoa da Erauso bezalako ikonoak erabiltzea hausnarketa antkoloniala pizteko. Egoki ikusten duzue?**

**M. DE SANTO:** Ez dugu Erauso ospetsuago egin nahi; aparra jaitsi behar zaio. Hari buruz hitz egiten badugu, orduan bere ekintza lazgarrien berri ere eman dezagun, ispilu efektuaren bidez identifikaziorik sor ez dezan. Aitortzen dut, Erausoren autobiografia irakurri nuenean, neure buruaren aurka borrokatu behar izan nuela, nolabaiteko lilura sentitu nuelako. Hiri-testuinguru zuritu batetik nator ni, eta txikitatik irakatsi didate kolonoaren antza izatea desiratzen. Botereak duen xarmarekin hautsi behar dugu. Lortu behar dugu Erauso hiltzaile gisa ikusaraztea, inork bereganatu nahiko ez duen subjektu ankerra.

**D. SACCHI:** Niri ez zitzaidan lilurarena gertatu, agian nire sorterrian eta nire familiaren historian presenteago daudelako kolonizazioa zein indigenen erresistentzia.

**Bestelako trans erreferente historikoak aurkitu beharko genituzke, LGBTB pertsonon ispilu bakarra izan ez dadin?**

**D. SACCHI:** Genozida bat ez da inoiz erreferente izango niretzat. Videolari [Jorge Rafael] buruz dudan iritzia aldatuko al litzateke trans zela jakingo balitz? Zergatik ez da Eleno Cespedes erreferente Europan? Arrazakeriak badu zerikusirik, akaso.

**M. DE SANTO:** Eta klasismoak.

**D. SACCHI:** Guk geuk Inkisizioaren artxiboetan trans beltz eta indigena ugari aurkitu bagenituen, edonork aurki ditzake Euskal Herrian beste figura batzuk, are gehiago kontuan izanda euskaldunek genero-binarismoarekin lotura berezia duzuela. Alegia, baserriko edozein amatxu arbaso izan daiteke Erauso baino erreferente hobea!

## Leslie Feinbergen *Borrokalari transgeneroak* liburuko pasarteak

“Deabruzko gauza bat ikusi nuen”, idatzi zuen Álvaro Nuñez Cabeza de Vaca kolonialista espainiarrak XVI. mendean. “Bekatzukoa, izugarria, perbertitua, zitala, higuigarria, antinaturala, nazkagarria, lizuna”.

Bi Espiritu jendearen gaineko kronika sentsazionalista horiek erabili zituzten, geroago, “justifikatzeko” genozidioa, natiboei lurak eta baliabideak ebastea, eta kulturak eta erlijioak suntsitzea.

Joseph François Lafitau misiolari frantsesak gaitzetsi egin zuen Aintzira Handien mendebaldean, Louisianan eta Floridan aurkitu zuen Bi Espiritu jendea, baina agerian utzi zuen jatorrizko herriek ez zutela halako aurreiritzirik: “Uste dut ohorea dela halako izaera...”, idatzi zuen 1724an, “erlijio-zeremonia guztietan hartzen dute parte, eta aparteko bizi horren lekukotzak ekartzen die maila handiko pertsonatzat hartuak izatea”.

Kolonizatzaileek Bi Espiritu jendearenganako zuten erreakzioa laburbiltzeko, Antonio de la Calancharen hitzak balia daitezke. Calancha kargudun espainiarra zen Liman. Calanchak idatzi zuen ezen Vasco Nuñez de Balboak Panaman barna espedizioa egitean, ikusi zituela “gizonak emakume gisa jantzirik. Balboak ikasi zuen sodomitak zirela, eta erregea eta beste berrogei bota zituen bere zakurretara, jan zitzairen; oso ekintza zuzena, espainiar ohoragarri eta katoliko bati dagokiona”.





# Erauso, gure buruaren ispilu

Mercedes Azpilicueta jatorri euskalduneko artista argentinarrak Londresen aurkeztu zuen joan den urtean *Bondage of Passions* erakusketa. Katalina/Antonio Erasoren historiatic tiraka, kolonialismoaren eta generoaren performatibitatea landu zituen han oihalgintzaren bidez.

**E**rausoren bidaien erregistroen collageak batu zituen tapiz erraldoi batean, eta herri kolonizatuen irudiak beste batean. XVII. eta XXI. mendeko estetikak nahasten dituzten jantzi eta artefaktuak ere sortu zituen, sexualitateari lotutakoak, hala nola, hankartea nabarmentzekoak edota bularrak ezkutatzekoak.

Euskal Herriko hiru ikerlari gonbidatu zituen mahai-inguru batera, erakusketaren testuinguruan sakontzeko: Amaia Alvarez Uria literatura irakaslea, Sergio Escribano-Ruiz arkeologoa eta Haizea Barcenilla arte historialaria. Solasaldia errepikatu dugu LARRUNen, orain euskaraz. Hirurak bat datoz: Erauso pertsonaia deserosoa da euskal gizartearentzat zein instituzioentzat eta, hain zuzen horregatik, erabat beharrezkoa.

## Nola heldu zen Erauso zuen bizitzetara?

**A. ALVAREZ:** Erasok bisita diferentek egin dizkit nire bizitzan zehar. Katalina Eleizegi idazleari buruzko tesia egiten ari nintzela erabaki nuen hobeto ezagutu nahi nuela, Erasori buruzko antzezlanari idatzi baitzuen Eleizegik. Orduan hasi nintzen autobiografiak harago sakontzen: Eva Mendietaren doktoretza tesia eta



**“ZAPALDUAK IZAN GARA, BAINA BAITA ZAPALTAILEAK ERE. IKUSPEGI HORRETATIK BERRIDATZI BEHARKO GENUKE GURE HISTORIA”**

**AMAIA ALVAREZ URIA**

Sherry Velascoren saiakera irakurrituen, besteak beste. Velascok ikeritu du nola irudikatu duten Erauso adierazpen artistiko diferenteetan. Garaiaren arabera aldatzen da baloratzen eta mespretxatzen dena. Horrek erakusten digu Erauso ispilu bat da: zeinek begiratzen duen arabera, desberdina egingo da irakurketa. Hasieran generoaren transgresioa iruditu zitzaidan deigarriena, baina tesiaren gaia genero eta nazio identitateen gurutzaketa izan da.

**S. ESCRIBANO-RUIZ:** Ezer gutxien Erasori buruz Mercedes Azpilicueta nirekin harremanetan

jarri zen arte. Galdetu zidan zer ekarpen egin zezakeen arkeologiak Erasoren birpentsatzean. Arkeologian ez ditugu pertsona edota data zehatzak aztertzen, baizik eta mendeak, prozesuak eta gizarteak. Hor-taz, kolonialismoaz hitz egin genuen orokorrean, eta Erauso hausnartarako bidea izan da; erausotar bat bihurtu naiz azkenean. Pertsonaia oso erakargarria egin zait, historian eta arkeologian esentzialismorako joera daukagulako, eta erakusten digulako zenbat errealitate kontra-jarri dauden.

**H. BARCENILLA:** Gipuzkoarra naitenez, txikitatik Erasoren erretratu eta historia presente egon dira nire iruditerian. Umetan San Telmo museora joaten nintzen gurasoekin zein eskolarekin. Mercedes gurekin harremanetan jarri zenean itzuli nintzen berriro Erasorengana; pertsonaia ez zen berria niretzat baina bai hurbilketa kritikoa, nire interes profesionalekin zein pertsonalekin bat egiten duena. Batetik, izugarri interesgarria da genero performatibitatearen ikuspegitik. Oso deigarria da Aita Santuak baimena eman ziola gizon gisa bizitzeko, nahiz eta garaiko askorentzat munstro bat izango zen. Bestetik, Euskal Herriko arte garaikidean oso

gutxi heldu zaio kolonialismoari, faltan sumatzen dut diskurtso autokritikoa. Elkano bezalako figurekin joera da kondaira epiko erabat positiboak egitea; hori Erausorekin zaila da, ertz asko dituelako.

**S. ESCRIBANO-RUIZ:** Espainian ez da kolonialismoaz hitz egin nahi, eta hitz egiten denean, tonua guztiz paternalista da: egindakoa bertokoen onurarako izan zela. Euskal Herrian badugu gure epopeia, baina esango nuke gizartearen jarrera nagusia indiferentzia dela, ez dakigulako non kokatu, sekulako kontraesana agertzen delako identitate nazionalaren

ikuspegitik. Kolonialismoa espainolei leporatzen diegu, gure erantzukizun historikoa ukatzen dugu. Esperanza Aguirreren argazki bat jarri ohi dut nire aurkezpenetan, hurrengo galderak botatzeko: Zergatik deitzen da Aguirre? Zer egin du euskal aristokraziak historian zehar? Zergatik dago Buenos Aireseko Recoleta hilerria militar euskaldunen hilobiz betea? Badirudi gure egin-kizuna izan zela Argentinako edota Ternuako herritarrei euskara zein erlijioa eramatea; aitzitik, leku horietan egin dudana lanak kritika anticolonialerako bidea ematen du. Egia

da Cristobal Colonek galdetu zuela ea indiarrak gizakiak ala animaliak ziren, eta euskaldunen kroniketan, aldiz, agertzen direla “adiskide” edo “anaia” bezalako hitzak. Harremana goxoagoa izan bazen ere, gure interesei begira egin genuen, baliabideak ustiatzera joan ginen eta.

**Nola baloratzen duzue Erausok Euskal Herrian duen aitortza? Monumentu gehiago eskatu behar ditugu ala Miramar Jauregikoa eraitsi?**

**A. ALVAREZ:** Euskal nazionalismoaren iruditeria sortze aldera, santuak bilatu dira, ideala betetzen duten pertsonaiak. Hala, figura batzuk aldarrikatzen dira eta beste batzuk baztertu. Elkano izan da euskal historiako *dream team*-erako azken fitxaketa. Alabaina, Erausoren irudia ez da borobila, ez ditu mito bihurtzeko ezaugarriak betetzen. Batzuek ez dute aldarri-

katuko Espainiako Inperioaren kolonizatzaile sarraskigilea zelako. Beste batzuek, ez zuelako zegokion rol femeninoa bete, eta emakumeekin ibili zelako. Esaterako, Carmen Erraztik, Euskal Emakume Abertzaleen Batzaren lehenengo presidentea, emakume euskaldunaren ereduaren kontrako erreferente moduan deitoratu zuen, femeninoa ez izateagatik. Deigarria da Mexiko edota Txileko historian gehiago nabarmendu dutela erreferente historiko gisa gurean baino. Elkanoren urteurrenak aukera ederra eman digu hau guztia mahaigaineratzeko: zer historia, diskurtso eta iruditeria ari garen erakitzen XXI. mendeko Euskal Herrian. Ildo horretatik, eskertzekoa da Axier Lopezen *Gure heroiak* kazetaritza liburua eta Itxaro Borda Elkano Fundazioarekin lanean dabilela jakitea.

“

**“ERAUSOREKIN AURREZ AURRE EGOTEAK HUNKITU NINDUEN. ORAINDIK BURUAN DUT BERE BEGIRADA”**

**SERGIO ESCRIBANO-RUIZ**

**S. ESCRIBANO-RUIZ:** Elkanoren urteurrena ospatzen badugu, jai-eguna eta guzti, Erausorena ere ospatu beharko genuke. Monumentuak bota ala utzi? Nik utziko nituzke, eta hausnarketarako baliatu.

**H. BARCENILLA:** Omenaldien joera da pertsonaien kontakizun oso laua egitea, baina prozesu historiko konplexu batean txertatuta dagoen pertsona konplexua da Katalina/Antonio. Egun onartezinak iruditzen zaizkigun alderdiak ditu eta baita



Goian, ezkerretik eskuinera, Haizea Barcenilla eta June Fernández; behean, Sergio Escribano-Ruiz eta Amaia Alvarez Uribe.

egun aldarrikatze modukoak direnak ere. Ondare materiala erabiltzearen aldekoa naiz ni ere, hain zuzen historia birkontatzeko. Ulertzen dut zenbait monumentu oso iraingarriak izan daitezkeela eta kendu behar direla; kasuan kasu aztertu beharko dugu. Erromatarren *damnatio memoriae* [oroimenaren kondena] dut gogoan: pertsonaia historiko bat gaitzesteko modu bat zen haren estatua suntsitzea, baina beste aukerak ere erabili zituzten, hala nola aurpegia desitxuratu edota estatua kendu, baina oinarria bere izenarekin mantenduz, erabakia argi ikus zedin. Halako interbentzioak balia ditzakegu narraitibak gaineratzeko.

**Genero- eta sexu- disidentek zeharo ezabatuta daude historia hegemonikotik. Zergatik lortu du Erasok halako ikusgarritasuna nazioarte mailan?**

**S. ESCRIBANO-RUIZ:** Oniritzia lortu zuen bere garaian, gizon patriarkalaren jarrera modu eredu-garrian bete zuelako.

**A. ALVAREZ:** Erasok bazekien diskurtsoa eraikitzen, bere burua saltzen. Bazekien zer kontatu aurrekoa bere alde jartzeko, eta hala egin zuen bere autobiografia diktatu zuenean. Ohorearen eredu izan zen Espainiar Inperioan: bai ohore femeninoarena (birjina mantendu zelako, kakotxen artean!) zein ohore maskulinoarena, borrokalari oso biolentoa eta beste herrien zapaltzailea izan zelako.

**H. BARCENILLA:** Ikusgarritasuna beharrezkoa da historiara pasatzeko, baina baita gizartearen onarpena ere. Baliabideak izan behar dituzu boterea lortzeko edo adierazteko. LGTBQI+ komunitateak ikusgarritasun gutxi izan du, ukatu zaiolako, baina baita norberak saihestu duela, sistema patriarkalean bere burua babesteko. Alabaina, Erauso ausartu zen bere erregistroa uztera. Horrek erakusten du bere irudiarekiko kontrola sentitzen zuela eta onarpen ofi-



Erausoren bidaien erregistroen kollageak batu ditu Mercedes Azpilicuetak tapiz erraldoi batean.

 MERCEDES AZPILICUETA



**“ERROMATARREK  
PERTSONAIA HISTORIKO  
BAT GAITZESTEKO  
MODU BAT ZEN HAREN  
ESTATUA SUNTSITZEA,  
BAINA BESTE AUKERAK  
ERE BAZITUZTEN,  
HALA NOLA AURPEGIA  
DESITXURATU EDOTA  
ESTATUA KENDU,  
BAINA OINARRIA  
BERE IZENAREKIN  
MANTENDUZ, ERABAKIA  
ARGI IKUS ZEDIN”**

**HAIZEA BARCENILLA**

zial nahikoa zuela, ikusgarritasun horrek bueltako zigorrik ez eragiteko. Garai hartan, margolan bat egitea ez zen *selfie* bat ateratzea bezalakoa.

Enkargua ordaindu zezakeen, baina erretratu laster suntsitu zitekeen. Pertsonaia historiko gisa edo bitxikeria historiko gisa gorde zuten? Zergatik egin zuten kopia bat? Interesgarria izango litzateke koadro horiek egindako bideak ezagutzeko.

**Nola berreskuratu dezakegu boteregunitik urrun mantendu ziren sexu- eta genero-disidenten historia?**

**S. ESCRIBANO-RUIZ:** Garai historiko batean informazio asko falta denean, oso nabaria da gure ereduak proiektatzen ditugula, eta gure ereduak patriarkalak dira. Horren adibide argia historiaurreari buruzko kontakizuna da: generoen arkeologia izeneko korronteak zailantzan jarri du museoaren iruditeria, esaterako, ehizan soilik gizonak irudikatze joera. Halaber, Sandra Monton eta Enrique Moral bezalako ikerlariak arkeologia kuirra edo transfeminista lantzen dihardute. Patriarkatuak gure jardunean duen eraginaz jabetu gara eta saiatzen ari gara hori deseraikitzen, iraganari begira zein orainaldiari; alegia, akademiaren baitako dinamikei.



**H. BARCENILLA:** Ekialde Hurbileko artearen historiako irakasle izan naiz urte askotan. Paul Rehaken ikerketak erabili izan ditut genero ikuspegia eta kuirra txertatzeko. Mesopotamiako gizartean bi generoren ordezkari lau genero zeudela bereizi zuen. Asko kostatu zaigu hori identifikatzea, artelanak binarismo-tik begiratzen ditugulako. Esaterako, figura bat bizarrarekin eta bularra estali gabe agertzen bada, gizon definitzen dugu, eta bizarrak ez badu eta bularra estalia, emakume. Hala, ez ginen gai ezaugarri horiek nahasten zituzten figurak ulertzeko.

**Zalantzan jarri da Erausoren autobiografiaren egiletza eta sinesgarritasuna. Axola zaizue zer den egiazkoa eta zer asmatua?**

**S. ESCRIBANO-RUIZ:** Arkeologian gauza txikietan jartzen dugu arreta. Iragana eraikitzen dugu, hitzetatik askotan, eta irizpide zehatz batzuetatik abiatzen gara zer den egia eta zer ez ebazteko. Erausoren kasuan, idazkiaren eta koadroaren azterketa kritikoa egin behar da: Zer testuingurutan sortu zen? Zergatik heldu zaigu? Nork sortu zuen eta zergatik? Zer asmo zuen atzean? Ikerlari bakoitzak garrantzia edo zilegitasuna emango die, nahitaez, bere ideologia edo interesak asetzen dituzten datuei, baina oinarri sendoa izan behar dugu.

**H. BARCENILLA:** Erretratoa eta autobiografia artelanak dira, eta artearen helburua ez da egia argitzea baizik eta errelato bat kontatzea, helburu estetiko eta sinbolikoak medio. Errelato hori beti da partziala, eta hainbat pertsonen ikuspegiak zeharkatzen dute: artelana eskatu duenarena, sortu duenarena, gorde duenarena... Ez dut esan nahi interesgarria ez denik Erauso historiari aztertzea, baina niri asko gustatu zait Amaiak ekarri duen irudia: Katalina/Antonio ispilu bat dela, gure burua islatzeko, historia

nola irakurtzen ari garen eta nola irakurri dugun hausnartzeko. Bere egia baino gehiago interesatzen zait zergatik den guretzat garrantzitsua gaur egun.

**A. ALVAREZ:** Euskal kultura iraurarazi, sustatu, elikatu eta zabaldu nahi dugunontzat, historia eraikitzen dugunean oso zaila izaten da hurrengo joerari eustea: gustatzen ez zaiguna ezkutatzeko edo makillatzea, hau da, alfonbra azpian gordetzea. Feminismo intersektionalak erakutsi digu jakin behar dugula biktimaren roletik irteten eta, agentzia hartzeaz gain, gure pribilegioez jabetzen. Zapalduak izan gara, baina baita zapaltzaileak ere. Ikuspegi horretatik berridatzi beharko genuke gure historia.

**Amaitzeko, zer iruditu zaizue Azkuna zentroko erakusketa?**

**H. BARCENILLA:** Alde ona da erakusketak ikusgarritasuna eman die la ezkutuan eta ilunpean bizi izan diren pertsonari. Alabaina, iruditzen zait pertsonari zuku gehiago atara ahal zitzaiola. Berezi, Cabello/Carcellerrek ez dute euskal kolonialismoaren alde landu.

**A. ALVAREZ:** Bat nator. Dokumentazio lan handia egin dute eta XXI. mendeko artefaktu artistikoekin uztartu dute. Gustatu zait, baina espektatiba handiagoak nituen Erausoren lanketari dagokionez. Dekolonialitatea oso modu globalean aipatzen dute, ez dute testuinguruan kokatu. Bustoa ikusteko bisita turistikoa egin zuten Donostian, baina ez dirudi bertoko jendearengana hurbildu zirenik.

**S. ESCRIBANO-RUIZ:** Iritzi kontrajarririk sortu dizkit, pertsonaiak bezala. Oso historikoa iruditu zitzaidan; zerbait artistikoagoa espero nuen eszenografiaren aldetik, agian performancearen bidez... Arrisku gutxi hartu dute. Hori bai, Erausorekin aurrez aurre egoteak hunkitu ninduen. Oraindik buruan dut bere begirada.

**H. BARCENILLA:** Horixe izan da gehien gustatu zaidana: bi koadroak aurrez aurre ikustea. Badirudi bere buruari begira dagoela. Zer ari zaio kontatzen? Dena den, agian gaian oso sartuta nagoelako iruditu zait erakusketa eskasa; nire ingurukoie, ordea, zirrara handia eragin die. Gustatuko litzaidake jakitea ea publiko orokorrarentzat ekarpen berria izan den. ●

## ERAUSORI BURUZKO EUSKAL BIBLIOGRAFIA

*Erauso Kateriñe* (1962): Katalina Eleizegi antzerkilariak idatzitako drama historikoa.

*Katalin Erauso* (1976): Autobiografiaren itzulpena eta moldaketa, Iñaki Azkune historialaria.

*Katalina Erauso* (2013): Aitor Zuberogoitia kazetaritzak irakasleak idatzitako biografia.

*Katalina Erauso* (2008): Maite Ithurbideren pastorala.

## ARTIKULU AKADEMIKOAK

*¿Catalina Erauso era vasca? Representaciones identitarias entre género, sexualidad y nación* (Catalina Erauso euskal herritarra zen? Generoa, sexualitatea eta nazioaren arteko errepresentazio identitarioak). Amaia Alvarez Uria.

*Género e identidad en la sociedad del siglo XVII*. (Generoa eta identitatea XVII. mendeko gizartean). Nerea Aresti.

# Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio  
finkorik gabe.

Ordaindu  
nahi duzuna.

**Egin ARGIAkoa**

[www.argia.eus/eginargiako](http://www.argia.eus/eginargiako)